

UNIBERTSITATERAKO SARBIDE PROBA
25 URTETIK GORAKOENTZAT

PROBA ESPEZIFIKOA

2023ko PROBA

BIOLOGIA

PROBA

ERANTZUNAK





AZALPENAK

Azterketak bi atal ditu:

- Lehen atalean, bi gaietako bat azaldu behar da: **A** edo **B**.
- Bigarren atalean, hiru galderei erantzun behar zaie.

Aintzat hartuko dira:

- Hizkuntza zientifikoaren erabilera.
- Ideiak adierazteko ordena eta heldutasuna.
- Azterketaren aurkezpen egokia. Probaren iraupena: ordubete

AUKERATU GAI BAT: A edo B

(4 puntu)

A.- Gai biziaren osaerak: Proteinak: Konposizioa. Lotura motak. Egitura-mailak. Funtzio biologikoak. (Aintzat hartuko da azalpenak marrazkiekin-eskemekin laguntzea)

B.- Zelula prokariota eta eukariota. Haien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak.

ERANTZUN GALDERA HAUEI:

(6 puntu)

1.- Defini itzazu, labur (30 hitz baino gutxiago), kontzeptu hauek (2 puntu):

- a) Genea
- b) Erreplikazioa
- c) Itzulpena
- d) Kodona
- e) Okazaki zatia

2.- Giza ugalketa: (2 puntu)

- a) Zein dira ugal-aparatuaren atalak? Zer izen ematen zaie ugal-zelulei?
- b) Deskribatu ugal-zelulen ibilbidea sortzen diren tokitik ernalketan elkartu arte.

3.- Azaldu zer diren txertoak, zer garrantzi duten eta zer mota dauden konposizioaren arabera.



**EBAZPENA BIOLOGIA
(2023ko maiatza)**

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

GAIK	Puntuak	ERANTZUNAK
A) Proteinak: Konposizioa. Lotura motak. Egitura-mailak. Funtzio biologikoak.	4	-Proteinak aminoazidoz osatuta daudela adieraztea. Proteinetan 20 aminoazido daude (0,5 puntu). - Aminoazidoak lotura peptidiko bidez lotzen dira. Lotura amida motakoa da: aminoazido baten karboxilo taldearen eta hurrengo aminoazidoaren amino taldearen artekoa da. (0,5 puntu) - Konformazio espaziala proteinen egitura-mailen emaitza dela adieraztea: lehen mailako egitura, bigarren mailakoa, hirugarren mailakoa, laugarren mailakoa; eta egitura horiek azaltzea (1 puntu+irudiak-eskemak 0.5p). - Proteinen funtzioak (1,5 puntu).
B) Zelula prokariota eta eukariota. Haien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak.	4	- Nukleoa eta Material genetikoa (1 puntu) - Horma zelularra eta mintza (0,5 puntu) - Erribosomak eta Organuluak (1 puntu) - Zelularen forma-antolaketa (0,5 puntu) - Metabolismoa (1 puntu)
GALDERAK	Puntuak	ERANTZUNAK
1.- Defini itzazu, labur: a. Genea b. Erreplikazioa c. Itzulpena d. Kodona e. Okazaki zatia	2	1) 0,4 puntu kontzeptu bakoitzeko
2.- Giza ugalketa: a) Zein dira ugalaratuaren atalak? Zer izen ematen zaie ugalezelulei? b) Deskribatu ugalezelulen ibilbidea sortzen diren tokitik ernalketan elkartu arte.	2	- Ugal-aparatu arra eta ugal-zelula (0,5 puntu) - Ugal-aparatu emea eta ugal-zelula (0,5 puntu) - Obuluaren ibilbidea (0,5 puntu) - Espermatozoidearen ibilbidea (0,5 puntu)
3.- Azaldu zer diren txertoak, zer garrantzi duten eta zer mota dauden konposizioaren arabera.	2	- Txertoen eta immunizazioaren arteko erlazioa (1 puntu) - Txertoen garrantzia (0,5 puntu) - Txerto motak konposizioaren arabera (0,5 puntu)



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA
SARTZEKO HAUTAPROBAK 25
URTETIK GORAKOAK

2023ko MAIATZA

BIOLOGIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA
MAYORES DE 25 AÑOS

MAYO 2023

BIOLOGÍA

**PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA-ADIERAZLEEN ARTEKO
KORRESPONDENTZIA**

Galdera	Ezagutza-adierazleak
A	1.1. Gai biziaren osaera azaltzea, bioelementuak eta biomolekulak identifikatuz. 1.2. Biomolekulen egitura kimikoa eta izaki bizidunetan betetzen duten funtzioa erlazionatzea.
B	2.1. Zelula prokariotoen eta eukariotoen ezaugarri komunak eta bereizgarriak azaltzea.
1	4.1 Gene, alelo, genotipo eta fenotipo kontzeptuak azaltzea. Transmisiorako mekanismoak.
2	3.4 Gizakion ernalketa-prozesua deskribatzea
3	6.3. Defentsa naturalak sendotzeko eta suspertzeko zer egin daitekeen ondorioztatzea. 6.5. Txertoen ekintza-mekanismoa azaltzea. 6.6. Immunologiaren zenbait aplikazio aztertzea